

**AUTOEBALUAZIOA****IV. MODULUA: BIRIKI BIDEZKO ADMINISTRAZIOA**

1. Farmakoen biriki bidezko administrazioan, inhalazio prozesuaz:

- a) Inhalazio prozesuan fluxu nahasia sortzea komenigarria da.
- b) Partikula tamaina partikulen barneratzea baldintzatzen duen faktore nagusia da.**
- c) Presioak eta hezetasunak ez dute partikulen barneratzea baldintzatzen.
- d) Erantzun guztiak okerrak dira.

2. Farmakoen biriki bidezko administrazioan, metaketa prozesuaz:

- a) Partikula tamaina handiagoa denean barreiadura bidez metatzeko probabilitatea handitzen da.
- b) Partikularen diametro aerodinamiko baliokideak metaketa prozesua baldintzatzen du neurri handi batean.**
- c) Arnasketa moduak ez dauka inolako eraginik partikulen metaketan.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

3. Farmakoen biriki bidezko administrazioa dosifikazio balbula duten presiodun ontziekin:

- a) Arnas hartzea astiro eta sakonki egin behar da.
- b) Arnasa hartu eta gero arnasketari eutsi behar zaio.
- c) Administrazioa errepikatu behar bada, minutu bat itxaron behar da.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.**

4. Erantzun okerra aukeratu. Inhalaziorako hautsen biriki bidezko administrazioaren kasuan:

- a) Administratu baino lehen arnasa bota behar da.
- b) Arnas hartzea astiro eta sakonki egin behar da.
- c) Arnasa hartu eta gero arnasketari eutsi behar zaio.
- d) Administrazioa errepikatu behar bada, minutu bat itxaron behar da.**